

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,
DEPORTE Y JUVENTUDDESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE

FOMENTO Y VIVIENDA

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Belateko tunela konpontzeko lanek irailera arte iraungo dute

Foru Gobernuak kalkulatu duenez, lanak burutzeko hamar aste beharko dira gutxi gorabehera, azpiegituraren erabiltzaileen segurtasuna bermatzea helburu nagusia delako

Jueves, 14 de julio de 2011


Iragan uztailaren 8an Belateko tunelaren barruan kamioi batek su hartu ondoren instalazioan eragindako kalteak direla-eta, azpiegitura irailaren amaierara arte itxita egongo da. Hala erabaki du Nafarroako Gobernuak Sustapen eta Etxebizitza Departamentuko Kontserbazio Zerbitzuak. Zerbitzu horretan lanean eta gertaeraren garrantzia dela-eta behar diren kudeaketa lanak burutzen ari dira.



Bobedaren barruko estaldura, sutearen ondorioz askatu zena

Adituen txosten teknikoa jaso ondoren, zehatzago kalkulatu ahal izan da obrari eta instalazioari egindako kalteak norainokoak diren. Kalteak handiak direnez, azpiegitura konpondu eta kontrolatzeko prozesuan zehar tunela itxita egon beharko da, berriz ere irekitzen denean segurtasun baldintza gorenak berma ditzan; hortaz, datozen asteetan obrak hasten direnetik irailaren amaierara arte itxita egongo da.

Instalazioei dagokienez, kableak, argiak, erretiluak eta euskarriak konponduko dira, baita telebista zirkuitu itxia, suteak detektatu eta itzaltzeko eta aireztatzeko sistemak ere. Horrez gain, tunelaren barruan kotxeak segurtasunez ibiltzeko baldintza seguruak bermatzen dituzten egitura elementuak leheneratuko dira, esate baterako, bobedako iragazgaitasunerako elementuak eta drainatze sistema, zoladura eta seinaleak.



Su hartu zuen kamioia, tunelaren barruan

Nafarroako Gobernuak behar besteko erantzukizuna eskatuko du Nafarroako Foru Erkidegoko Administrazioari eragindako kalte eta galeren

ordaina jasotzeko.

Gertaera iragan uztailaren 8an, ostirala, gertatu zen Belateko tunelaren barruan, kamioi batek su hartu zuenean iparraldeko irteeratik 220 metrora. Suak hartu eta berehala, Gobernuako Errepideak Kontserbazeko Kontrol Zentroak gertatutakoa detektatu eta halako kasuetarako ezarritako jarduera protokoloa jarri zuen abian: tunela itxi eta SOS Nafarroarekin jarri ziren harremanetan, handik suhiltzaileen eta Guardia Zibilaren larrialdi zerbitzuak hedatzen has zitezten. Zerbitzu horiek ahalik azkarren eta eraginkortasun handienarekin erantzun zuten garrak albait arinen itzali eta trafikoa desbideratzeko.

Trafikoa NA-1210 errepidetik (Belateko mendatea) desbideratu da konpontzeko obrak burutu ahal izateko, eta ibilgailu astunak A-15 autobiatik joatea gomendatu da.

Anai Astiz Sustapen eta Etxebizitza kontseilariak esker ona adierazi die hasiera-hasieratik burutu diren prozedura eta protokoloen funtzionamendu egokian esku hartu duten profesional guztiei, lan egokia burutu dutelako.